

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta erreginaren edabea

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla



erein

ANNA KOPEK

eta erreginaren edabea

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2023ko maiatzean

Diseinua eta maketazioa: Erein argitaletxea
Azaleko eta barruko ilustrazioak: Marko | Maëla

© Marko | Maëla, ilustrazioena
© Haritz Larrageta, testuarena
© EREIN. Donostia 2023, edizioarena

ISBN: 978-84-9109-891-1
L. G.: D 400-2023

EREIN Argitaletxea
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
e-posta: erein@erein.eus
www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu
Zubillaga industrialdea 9
20560 Oiñati, Gipuzkoa
T 943 783 309
e-posta: gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

HARITZ LARRAGETA

ANNA KOPEK

eta erreginaren edabea

ILUSTRAZIOAK

Marko | Maëla

erein

I

Frantzian



—**Z**einekin jokatuko dute finala? —galdetu zuen Jokinek.

—Herbehereek eta Estatu Batuek —erantzun zion Uxuek.

—Estatu Batuak onak dira futbolean?

—Bai, emakumezkoetan onenetakoak dira. Arretaz ikusi duzu partida bakar bat sikiera?

Sorbaldak altxatuz agerian utzi zuen anaiak futbolak eragiten dion ezaxola.

Anna Kopeken blogean Moskuko abenturak kontatu zituztenetik ia urtebetera, Frantziako Lyon hirian zeuden. Aurretik, Parisen eman zituzten hiru

aste, handik eman baitzuen amak Munduko Futbol Txapelketaren lehenengo partiden berri, eta, ondoren, finalerdiak eta finala Lyonen jokatzekoak zirenez, hara mugitu behar izan zuten.

Parisen, amak lan egiten zuen bitartean, izeba Leirerekin oso gustura ibili ziren batetik bestera. Gaztetan han ikasi zuenez, oso ongi ezagutzen zuen hiria. Eta, horri esker, leku turistikoez gain, Pariseko txoko berezi asko ezagutu zituzten: la Cité du Figuiet, Nicolas Flamelen etxea... Lyonerako trena hartu zutenean, bere oporrak bukatuta, Iruñera itzuli zen izeba autoz, eta, ordutik aurrera, Lyon zaharrean barrena amarekin ibili baziren ere, hotelean eman zuten denbora gehiena.

—Beraz, nirekin finala ikustera etorriko zarete? —galdetu zien amak.

Elkarri begiratu, eta aldi berean erantzun zioten amari:

—Bai —pozik Uxuek eta gogogabe Jokinek.

Besarkada eman zion arrebak, jakin baitzekien beragatik egiten zuela.

—Ikaragarria izango da, ikusiko duzu! —agindu zion anaiari.

* * *

Hamalau urte ditu Uxuek eta hamar Jokinek. Aurreko udako abentura buruan eman zuten ikasturtea. Hala ere, Uxuek fundamentu handiagoa hartu zuen institutuko bigarren urtean; igarri zen notetan. Eta beti bezain fin ibili zen futbolean zein xakean. Jokinek, beste behin, marrazkiak egiten igaro zuen kurtsoa. Apur bat arduratuta hitz egin zion irakasleak amari ikasturte amaieran: «Bere marrazkietan murgilduta ematen ditu goiz gehienak». Amak eskolan arreta handiagoa jartzeko eskatu zion, baina ez zegoen benetan kezkatuta; ederki ezagutzen zuen semea; bazekien marraztu bitartean tarteka jartzen zuela belarria eta ideia orokorra hartu ohi zuela, gehienetan behintzat. Etxean ere antzera ibiltzen zen askotan; ordu txikiak egiten zitzaizkion komikiekin sarri, Uxueri irakurtzen bezala. Baina, horrekin ere, malgu jokatu ohi zuen amak, bera ere iguala baitzen; orduak eman zitzakeen irakurtzen erlojuari jaramonik egin gabe.

Uztailaren zazpia zen eta beteta zegoen Lyongo Parc Olympique futbol zelaia.

—Zenbat pertsona kabitzen dira hemen?

—Ia hirurogei mila —erantzun zion Uxuek.

Oso lehiatua izan zen lehenengo zatia, eta, bigarrenak hamabost bat minutu zeramatzala, bat-batean, jokoa eten zen.

—Zer gertatu da? Zergatik daude guztiak geldirik? —galdetu zuen Jokinek.

—Arbitroak jokaldia berrikusi nahi du —erantzun zion arrebak.

—Nola, berrikusi?

—Jokaldi garrantzitsu batean zalantzak baditu, errepikapena ikustea eska dezake. —Une batez isildu zen Uxue, gertatzen ari zenari so—. Begira! Penaltia dela erabaki du!

Azkenean, 2-0 irabazi zuten estatubatuarrak; munduko txapeldunak ziren berriz ere. Herbehere-tarrak nagusi ziren eremu batean eserita zeudenez, nahiko lasai atera ahal izan ziren futbol zelaitik. Hotelerako bidean azaldu zien amak hurrengo egunean egingo zuten bidaia. Goiz jaiki beharko zuten aireportura joateko.

—Vienarako hegazkina goizeko hamarretan aterako da. Bi ordu baino gutxiagoko hegaldia da. Aireportuan lau ordu emango ditugu. Ondoren...

—Lau ordu aireportuan? —kexatu zen Jokin.

—Bai, maitea, sentitzen dut —erantzun ondoren, ezpainak estutu zituen, semeari maitekiro begiratzen ziola.

—Okurrituko zaigu zerbait egiteko —esan zion ahapeka arrebak, baina Jokin ez zirudien oso konbentzituta.

Goizeko sei eta erdiak. Kolpean zabaldu zituen amak gelako errezelak. Motelago zabaldu zituen Uxuek begiak. Lo jarraitzen zuen Jokinek, ahotik burkora larde hari bat zeriola. Hura ikusita, irribarre egin zioten amak eta alabak elkarri.

—Zure kontu? —galdetu zion amak.

—Nire kontu.

Uxue anaiaren oheraino hurbildu zen, Jokinek bizkarra ematen zion aldera. Koltxoari heldu zion ertzetik; begiak itxirik arnasa hartu, eta koltxoia ahalik eta modu bortitzenean astintzen hasi zen.

—Lurrikaraaaaaaa! —oihukatu zion artean lo zegoen anaiari.

Hain fuerte astindu zuen ohea eta hain susto handia eman zion, non lurrera erori egin zen. Gelako

beste puntatik, amak, serio aurpegia jarri ezinik, «pasatu zara» esan nahi zion alabari begiradaz. Begiak guztiz ireki gabe artean, burua koltxoiaren gainetik altxatu zuen Jokinek. Irri bihurria eskuaz tapatu zuen Uxuek, begiak ezker-eskuin mugitzen zituen bitartean.

—Mendekua hartuko dut, lasai —esan zuen Jokinek, eta barrez lehertu zen arreba.

—Mendekua pentsatzen duzun bitartean, hasi arropa janzten —moztu zuen amak—. Aireportuan gosalduko dugu.

Jaitsi zirenerako, taxia zuten zain.

—Hara! Antoine de Saint-Exupéry du izena aireportuak! —ohartu zen Uxue bidean.

—Nor da? —galdetu zion anaiak.

—Ez duzu *Printze txikia* irakurri, ezta?

—Ez...

—Idazle izateaz gain, pilotua ere bazen; agian horregatik jarri diote haren izena aireportuari. —Pentsakor gelditu zen une batez—. Uste dut Bigarren Mundu Gerran hil zela.

—Bai, itsasora erori zen haren hegazkina —argitu zuen amak—. Gaztea zen.

Iritsi ziren aireportura. Kontrol guztiak pasatu zituzten eta gosaltzera joan ziren. Bikaina iruditu zitzaien gosaria, baina ezin izan zuten bukatu; hegazkina zain zuten. Aireratu zirenean, aurrekoetan baino fuerteago heldu zion Jokinek eskutik arrebari, eta segurtasun-uhalak janzteko argia itzali arte ez zuen askatu. Saint-Exupéryren kontuak ez zion batere lagundu hegan egiterakoan izan ohi zituen beldurrak baretzen. Ohartu eta damutu zen ama detaileetan sartu izanaz. Bi ordu zituzten Austriaraino. Han, Vienan, hartuko zuten Egiptorako hegazkina, bertan jokatzeko ari baitzen gizonezkoen Afrikako Futbol Kopa.

—Begira, Jokin, Alpeak dira horiek. Ez al dira ikusgarriak?

Vienako aireportuan, Uxuek hartu zuen entretenigarria izan ahal zen zerbait topatzeko ardura. Amak, kafeak lagunduta, lan egiten zuen, kafetegi batean eserita.

—Ez kezkatu, ama. Ezin zaigu ezer gertatu aireportu barnean. Eta badakigu non zauden; galduko bagina, norbaitek esango liguke nola iritsi honaino.

Ama lanpetuegi zebilen kontrako argudioren bat pentsatzen hasteko, eta joaten utzi zituen.

Buelta handia eman zuten, eta denda batzuetan sartu ziren, baina ez zuten aparteko gauzarik aurkitu, eta, azkenean, butaka banatan eseri ziren; elkarren ondoan, hegazkinen joan-etorriei begira. Konpainia, kolore eta tamaina askotako hegazkinak zebiltzan batetik bestera; batzuk gora, beste batzuk behera.

Halako batean, emakume gazte bat eseri zen Uxueren ondoan. Hasiera batean ez zioten kasurik egin.

—Kaixo, Anna Kopek —esan zien.

Harrituta zeuden. Lehenengo aldia zen matroxkena gertatutakoa kontatzeko baliatu zuten ezi-zenaz deitzen zituztela.

—Dasha! —erantzun zuten biek.

Urtebete pasatua zen Moskun elkarrekin ibili zirenetik.

—Zer moduz dago Anna? —galdetu zion Uxuek, ingelesez.

—Ongi. Bere etxean dago, ikerketa batean murgilduta... —eten zuen, bat-batean, kortesiazko

hizketa—. Zuekin hitz egiten geratu nahiko nuke, baina ez dut denbora askorik.

—Zer gertatzen da? –galdetu zion Uxuek, Jokinek elkarrizketa nekez jarraitzen zuen bitartean.

—Zuen laguntza behar dugu.

—Gurea?

—Bai. –Anai-arrebei begira gelditu zen une batez—. Matrioxkak lapurtzeko enkargua egin zue-nak Egipton dagoen zerbait nahi du oraingo honetan.

—Nor da?

—Ezin dizuet orain xehetasun handirik eman.

—Eta zer egin behar dugu?

—Sentitzen dut, baina ezin dizuet ezer aurreratu. Lagunduko diguzue?

—Ba al dugu beste aukerarik?

—Guk ez –aitortu zion Dashak, pena apur bat adierazten zuen irribarre batekin.

—Lagundu behar diegu –erabaki zuen Jokinek.

Esker onez begiratu zien Dashak. Liburu zahar bat atera zuen poltsatik, eta Uxueri luzatu zion. Ingelesezt idatzita zegoen.

—Honek lagunduko dizue —esan zuen, hasperen egin aurretik—. Barkatu, zuekin geratu nahiko nuke, baina alde egin behar dut.

Altxatu zen, anai-arreben masailak ferekatu zituen, eta euskaraz «zorte on» esanda alde egin zuen.